

## **BI MILA ETA HAMAİKAKO EKAINAREN 30 ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

2011ko ekainaren 30an arratsaldeko 20:00etan, Etxarri-Aranazko Udalak ohiko Osoko Bilkura deitu, eta lehenengo deian osatu zuen, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

**ENEKA MAIZ ULAYAR and.**  
**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**  
**EDURNE IGOA LIZARRAGA and.**  
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**  
**ARACELI ERDOZIA ANSO and.**  
**FRANCISCO MANUEL CAMPOS ARAÑA Jn.**  
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**  
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO.**  
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**

Ez da bertaratu:

**UGAITZ CRESPO GUTIERREZ**

Eta artatuz, **Iulen Urbiola Loiarte** udal idazkaria

### **1.- AURREKO AKTA.**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, 2011ko ekainaren 11an egindako Osoko Bilkuraren akta onartu da.

### **2.-ZINEGOTZIAREN AKREDITAZIOA ETA KARGUZTE**

Miguel Angel Goñi-ren kredentziala eta akreditazioa egiaztatu ondoren alkateak onespina ematen dio. Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hori betez, Miguel Angel Goñi udaletxeko idazkaritzaren aitzinean egon litekeen bateraezintasunei eta diru-sarrerak dakarzkieten edo ekar diezazkieketen jardueri buruzko aitorpena eta beren ondare-ondasunei buruzko aitorpena egin duela egiaztatu du. Jarraian, HAOLoren 108.8. artikuluan xedatutakoa betez, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan jasotako formularen arabera karguaren betebeharrak Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela zin edo promes egin du. Aurreko izapide guztiak eginda, Miguel Angel Goñi-k zinegotzi-karguaz jabetu da.

Bestaldetik Alkateak jakinarazten du Nafarroako PPko fax-etik Ugaitz Cresporen idazki bat bidali dutela zinegotzia kargua uzten duela esanez. Puntu honetan Idazkariak ohartarazten du Fax bat ez dela nahikoa eta eskatu duela originala edota Crespo jaunaren NAN sinadura

egiazatzeko. Osoko Bilkurak berresten du idazkariak emandako pausoak. Halaber Idazkariak jakin arazten du Nafarroako PPko fax-etik ere M<sup>a</sup> Dolores Casi Vicenteren izenean idazki bat bidali dutela gai berberakin. Kasu honetan, Zonaldeko Hauteskunde batzordeari helaraztea erabakitzen da, udalak aipatutako anderearen akreditaziorik ez duelako.

### **3.- ENTITATE ETA ERAKUNDE EZBERDINETAN EGONGO DIREN ORDEZKARI ETA ERAKUNDEEN SORKETA**

#### **A) OHIKO OSOKO BILKUREN DATA.**

Bozketak orain arte egin diren bezala egitea adosten da, eskua jasoz alegia eta izenezko bozketetan alfabeto ordenean eta alkateak bozkatzen duen azkena izango da.

Ohiko Osoko Bilkurak hileko lehendabiziko astelehenean, arratsaldeko zortzietan izango dira.

#### **B)- BATZORDEEN ERAKETA ETA ALKATE ORDEEN IZENDAPENA.**

##### **.- Tokiko Gobernu Batzordeak.**

Tokiko Gobernu Batzordea eratzea adosten da. Kideak ondoko hauek izango dira: Alkate-presidentea Jose Ignacio Bakaikoa eta alkateak izendatutako zinegotziak Eneka Maiz Ulyar, Aitor Karasatorre Muguruza, Arantxa Artieda Igoa. Tokiko Gobernu Batzordeen ohiko bilerak hileko bigarren eta laugarren asteko ostegunean goizeko 9tan udal bulegoetan izango dira.

Tokiko Gobernu Batzordearen xedea alkateari bere eginkizunetan laguntzea eta aholkatzea da eta zentzu horretan Alkatearen dekretuaren bidez (Zkia. 74/2011) jasotako eskumenak izango ditu:

a) Lan eskaintza publikoa osoko bilkuran onetsitako aurrekontuaren eta plantillaren arabera onestea; langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestea.

b) Zehazki osoko bilkuran onetsi beharrekoak ez diren planeamendu orokorra garatzeko, hirigintza kudeatzeko eta urbanizazio proiektuetarako planeamendu tresnak onestea.

c) Obren proiektuak eta zerbitzuak onestea, kontratatazioa egin edo emateko eskumena duenean eta aurrekontuan sartuta daudenean.

d) Lizentziak ematea, alor horretako legeek Udaltzari edo Gobernu Batzordeari berari ematen ez badiote eskumen hori.

#### **KONTU BEREZIEN BATZORDEA**

Kontu Berezi Batzordearen eraketa adosten da eta kideak Tokiko Gobernu Batzordearen kide berberak izango dira: Alkate-presidentea Jose Ignacio Bakaikoa eta alkateak izendatutako zinegotziak Arantxa Artieda Igoa, Eneka Maiz Ulyar, Aitor Karasatorre Muguruza.

**KULTURA ETA KIROLA.**

Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Iñigo Lazkoz Lekuona izango da.

**EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA**

Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Eneka Maiz Ulayar izango da.

**SOZIOEKONOMIA (Industria, nekazaritza, turismoa)**

da. Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Araceli Erdozia Anso izango

**GIZARTE ZERBITZUA**

Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Miguel Angel Goñi izango da, eta bertako kide Francisco Manuel Campos Araña.

**BASOGINTZA-INGURUGIROA**

Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Aitor Karasatorre Muguruza izango da.

**PARTE-HARTZE**

Arduraduna eta batzordearen presidentea Jose Ignacio Bakaikoa izango da.

**GAZTERIA-EMAKUME-HEZKUNTZA**

da. Zinegotzi arduraduna eta batzordearen presidentea Edurne Igoa Lizarraga izango

**ALKATE-ORDEEN IZENDAPENA.**

**Alkateak jakinarazten du** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.2 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, eta kontuan hartuz 2568/1986 Errege Dekretuak onesten duen Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 46. Artikuluan ezarritakoa, alkateak libreki izendatzen ditu alkateordeak Gobernu Batzordeko kideen artetik, halakorik denean, bai eta kargutik kentzen ere.

Ebatzi duela:

1. Udal honetako zinegotzi hauek alkateorde izendatzea. Oraingoan, bi izanen dira:

1. Aitor Karasatorre Muguruza
2. Eneka Maiz Ulayar

Alkate-ordeei dagokie izendapena ordenaren arabera bere funtzio guztietan Alkatea ordezkatzeko.

**C)UDALAREN ORDEZKARITZAK BESTE ERAKUNDEEN AURREAN.**

Hurrengo zinegotziak izendatuak izan dira:

**SAKANAKO MANKOMUNITATEA:**

Ordezkaririk: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena, Araceli Erdozia Anso, Maider Goñi Errazkin

**ETXARRI ARANAZKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN  
MANKOMUNITATEA.**

Ordezkariek: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena, Eneka Maiz Ulayar, Miguel Angel Goñi, Edurne Igoa Lizarraga, Iñigo Lazkoz Lekuona, Araceli Erdozia Anso

**MUSIKA ESKOLAKO BATZORDEA.**

Titularra: Iñigo Lazkoz Lekuona

Ordezkoa: Edurne Igoa Lizarraga

**UEMA.**

Eneka maiz Ulayar , Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena.

**EBROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA**

Ordezkarria: Miguel Angel Goñi

**SAN DONATO ESKOLAKO HEZKUNTZA BATZORDEA.**

Ordezkarria: Edurne Igoa Lizarraga

**EUDEL**

Ordezkarria: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena.

**ANDRA MARI IKASTOLA**

Ordezkarria: Iñigo Lazkoz Lekuona

**UNION DE ARALAR. URBASA.. GARAPEN PATZUEGOA.**

Ordezkarria: Aitor karasatorre Muguruza

**CEDERNA**

Araceli Erdozia Anso

---

#### **4.- ALKATEAREN EBAZPENAK**

Alkateak ondoko ebazpena jakinarazten du eta osoko Bilkurak onartu du:

**66/2011 UTZUBARTXIKIKO LURSAILA : KONTRATAZIO MAHAIA**

Bi mila eta hamaikako apirila 5eko osoko bilkuran, **Utzubartxiki Lursailaren Kontzezioaren Baldintza Plegua** izeneko puntuan, hezkuntza pribatuko –D- eredu zentroa ezartzeko jabari publikoko kontzesio administratiboaren konkurtsoaren deialdia martxan jartzea aho batez onartua izan zen eta aldi berean prozedura horren kontratazio mahaiaren kideak izendatu izan ziren (Alkatea, bi zinegotzi eta udal idazkaria). Maiatzaren 21eko hauteskunde emaitzaren ondorioz udal ordezkariak aldatu da eta izendatutako mahai kide batzuk bere karguak utzi dituzte eta ondorioz ezin dute kontratazioa mahian egon.

Ikusita kontratazio mahia hurrengo egunetan bildu behar dela eta jakinda osoko bilkurak oraindik ezin dela bildu alkateak erabaki du:

1- Aipatutako prozeduraren kontratazio mahaiaren kideak izendatzea: Jose Ignacio Bakaikoa (presidentea), Arantza Artieda Igoa bokala, Aitor Karasatorre bokala, eta udal idazkaria.

#### **75/2011 ESKONTZAK DEKRETUA**

Kontuan harturik alkateek ezkontza zibila baimentzearen gainean Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 1995eko urtarrilaren 26an eman jarraibidea. Kontuan hartuz, orobat, Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 44 eta 47. artikuluek eta haiekin bat heldu direnek xedatzen dutena, honen bidez,

Ebatzi dut:

Udal honetako zinegotzi guztien esku uztea Herriko Etxe honetan ezkontza zibilak egiteko eskumena, ezkontideek hala eskatzen dutenean.

Erabaki hau interesatuei jakinarazi eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 20:30an presidenteak Osoko Bilkura amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.